

ARIKETAK

- 1 Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena edo egokiena:
- a) Langileek eta enpresak **behin-behineko** akordioa lortu dute.
b) Langileek eta enpresak **behin-behingo** akordioa lortu dute.
 - a) Neurri gabeko perretxiko bilketaren kalteaz ohartuta, **arauketa** beharrezkoa den erabakiko du Bizkaiko Aldundiak.
b) Neurri gabeko perretxiko bilketaren kalteaz ohartuta, **araupeketa** beharrezkoa den erabakiko du Bizkaiko Aldundiak.
 - a) Harridura-**ikurraren** ostean ez da punturik jarri behar.
b) Harridura-**markaren** ostean ez da punturik jarri behar.
 - a) Eusko Jaurlaritzak elikagaien **araubide** berri baterako oinarriak jarri ditu aurtun.
b) Eusko Jaurlaritzak elikagaien **araupide** berri baterako oinarriak jarri ditu aurtun.
 - a) Hamabi **artegai** gehiago izango ditu hemendik aurrera Guggenheim Bilbao Museok.
b) Hamabi **artelan** gehiago izango ditu hemendik aurrera Guggenheim Bilbao Museok.
 - a) Etorbizunean pentsatzen **ohituratu** gara, orainari duen garrantzia eman gabe.
b) Etorbizunean pentsatzen **ohitu** gara, orainari duen garrantzia eman gabe.
 - a) Azken urteotan asko eztabaidatu da polo magnetikoen hurrengo **alderanzketa** gertatzeaz ote dagoen.
b) Azken urteotan asko eztabaidatu da polo magnetikoen hurrengo **inbertsioa** gertatzeaz ote dagoen.
 - a) Facebooken **bitartez** beste erabiltzaile batzuei milioika spam mezu bidaltzen zaie.
b) Facebooken **bitartekoz** beste erabiltzaile batzuei milioika spam mezu bidaltzen zaie.
 - a) Bileran esan zirenak kontatuko dizkizut, edo **hobeki esan**, ulertu nituenak.
b) Bileran esan zirenak kontatuko dizkizut, edo **hobe esan**, ulertu nituenak.
 - a) Hainbat **batzarre** eta foro antolatu dituzte unibertsitateetako gabezien inguruan.
b) Hainbat **batzar** eta foro antolatu dituzte unibertsitateetako gabezien inguruan.
 - a) Granadako San Joan **ebanjelari** eliza XVII. mendekoa da eta meskitaren hondarrak ditu.
b) Granadako San Joan **ebanjelista** eliza XVII. mendekoa da eta meskitaren hondarrak ditu.

A R I K E T A K

12. a) Hainbat mediku joan ziren istripua gertatutako tokira, baina heriotza **egiaztatu** besterik ez zuten egin ahal izan.
b) Hainbat mediku joan ziren istripua gertatutako tokira, baina heriotza **egizatatu** besterik ez zuten egin ahal izan.
13. a) Folk Lore egunak **ehunka** lagun bildu zituen Iruñeko Amaiur dantza taldeak antolatuta.
b) Folk Lore egunak **ehundaka** lagun bildu zituen Iruñeko Amaiur dantza taldeak antolatuta.
14. a) Munduko leku gehienetan daude egoera **eleanitzak**.
b) Munduko leku gehienetan daude egoera **eleaniztunak**.
15. a) Kirmen Uribe idazleak lehen **elaberrria**, *Bilbao-New York-Bilbao*, argitaratu du.
b) Kirmen Uribe idazleak lehen **eleberrria**, *Bilbao-New York-Bilbao*, argitaratu du.
16. a) Gaiari ondo eusteko, faktore **erabakiorrak** zehaztu beharko ditugu.
b) Gaiari ondo eusteko, faktore **erabakigarriak** zehaztu beharko ditugu.
17. a) Pakistango **armadak** ustezko hogei ekintzaile hil ditu herrialdeko ipar-mendebaldean.
b) Pakistango **erjertzitoak** ustezko hogei ekintzaile hil ditu herrialdeko ipar-mendebaldean.
18. a) Oporretara joateko **ekipaia** egiten utzi dut etxean.
b) Oporretara joateko **ekipajea** egiten utzi dut etxean.
19. a) Krisi ekonomikoa izan zuten **elepide** atzoko osoko bilkuran.
b) Krisi ekonomikoa izan zuten **elebide** atzoko osoko bilkuran.
20. a) Aktoreen **entsegu** guztietara joaten saiatzen zen zuzendaria.
b) Aktoreen **entseiu** guztietara joaten saiatzen zen zuzendaria.



Mitxel Kaltzakortaren "Erdarazko partikula batzuk itzultzen (eta II)" artikuluan adierazitakoa kontuan hartuta, euskaratu ondoko esaldiak:

1. El ex arquitecto evita la cárcel tras pagar una fianza de 300.000 euros.

2. Tras las correcciones generales, el proceso es más mecánico.

3. El presidente iraní se muestra contento tras leer el informe sobre desarrollo nuclear.

4. Iberdrola sube el 16% tras la entrada de un inversor francés.

5. Cambiaron el modelo de producción tras un acuerdo con la empresa.

A R I K E T A K

6. María José Rienda dice adiós a la temporada tras una caída en Aspen.

7. El árbitro suspendió el partido tras ponerse de acuerdo con los entrenadores.

8. Tras el hundimiento de las acciones de Yahoo, Yang ha presentado su dimisión.

9. Tras el triunfo en las elecciones, las bolsas asiáticas recuperaron la confianza.

10. Tras percatarse de las posibilidades tecnológicas, el instituto decidió crear un curso on-line.

3 Sinonimoak eman:

1. Antolakunde osasuntsua zer ote den **hausnarrean** hasten baldin bagara, bere baitan bi termino daudela konturatuko gara.
2. "Osasuntsu" **ñabardura** horrek zerikusia du bai langileen bai antolakundearen beraren osasuna zaintzearekin.
3. Langileen osasuna hobetzeko praktika onak erabili behar dira eta horretarako **afazak** hobetu behar dira, lanpostuak diseinatuz adibidez.
4. Antolakundearekiko harrotasuna, **atxikimendua**, leialtasuna eta konpromisoa indartzea lortu behar da.
5. Bezeroari eta herritarri kalitatezko zerbitzua eskaini beharra **sustatzea** da onartuko den estrategietako bat.
6. Legearen 14. artikulua bigarren paragrafoa **eskuordetzaren** eremuko abokazioari dagokio.
7. **Txisten** asko ditu agerian matazak, eta batetik tirata, elkarri lotutako hari bat eta beste bat aterako ditugu.
8. Bandoen arteko **liskarretan** ibili ziren garai hartako familia botereitsu asko.
9. Proposamen arriskutsu haiek onuragarriak izan zitezkeen ondo **hezurmamituz** gero.
10. Lurrean **aztarrika egin** eta azpiko meategiak ustiatu zituzten.

SOLUZIOAK

1 Zuzena(k) edo egokiena(k) aukeratu:

- | | |
|-------|-------|
| 1. a | 11. a |
| 2. a | 12. a |
| 3. b | 13. a |
| 4. a | 14. b |
| 5. b | 15. b |
| 6. b | 16. b |
| 7. b | 17. a |
| 8. a | 18. b |
| 9. a | 19. a |
| 10. b | 20. a |

2 Mitxel Kaltzakortaren "Erdarazko partikula batzuk itzultzen (eta II)" artikuluan adierazitakoa kontuan hartuta, euskaratu ondoko esaldiak:

1. Arkitekto ohiak kartzela saihestu du, 300.000 euroko fidantza ordainduta.
2. Zuzenketa orokorrak eginda, prozesua mekanikoagoa da.
3. Iraneko presidentea pozik azaldu da, garapen nuklearrari buruzko txostena irakurrita.
4. Iberdrola %16 igo da, inbertitzaile frantses bat sartuta.
5. Produkzio-eredua aldatu zuten, enpresarekin adostuta.
6. Aspen-en erorita, Mari Jose Riendak agur esan dio denboraldiari.
7. Epailleak partidua geldiarazi zuen, entrenatzaileekin adostuta.
8. Yahooen akzioak hondoratuta, Yang-ek dimisioa aurkeztu du.
9. Hauteskundeak irabazita, Asiako burtsek konfiantza berreskuratu zuten.
10. Teknologiaren aukerez jabetuta, institutuak on-line ikastaro bat sortzea erabaki zuen.

3 Sinonimoak:

1. pentsatzen, gogoeta egiten
2. xehetasun, bereizgarri
3. zereginak, egitekoak, eginkizunak
4. lotura, itsaspena
5. bultzatzea, indartzea, suspertzea
6. ordezkartzaren
7. dindirri, txorten
8. borroketan, sesioetan, tirabiretan
9. gauzatuz
10. induskatu